

35. zenbakia / 2023ko abendua

Leizako
aldizkaria


Marmari

- LeitzEKO
EBK
- GAITU
- Eskaini
euskara
- Aurrera
Dantza
Taldea
- Leitza
Pilartxoren
begietan
- eta gehiago...

Energiaren eta
euskararen
ardura hartuz



zenbaki honetan:





Eskuarte duzun hau MARMARI-ren 35.alea da, bada zerbait 35 aldizkari argitaratu izana! Zenbat kontu bildu dira 35 aldizkari haueko orrietan, herriari eta herritarrei, kulturari eta herrigintzari lotuak, denak. Oraingo honek ere badakarzki gai ezberdinak. Izenburuak jaso duen bezala, energiaren eta euskararen arduratik abiatuko da aurtengoa, batetik, LeitzEKO EBK komunitatearen nondik norakoak jasoko ditugulako, eta bestetik euskara hauspotzeko egin diren egitasmoen berri izanen dugulako. Euskara ikasten aritu diren dendari eta ostalarien ahalegina txalotu nahi izan du herriko Tximutxe Euskara Taldeak eta bideo labur baten bidez adierazi digute

saltzaile horiek erdaldunak izanagatik ere, euskaraz ulertzen dutela eta duten jarrera onak erakusten digula euskaraz eska diezaiekegula. Hari beretik, euskarak espazio berriak irabazteko urrats berriak emanez, GAITU proiektuan ere parte hartu du Leitzak, herritar askok euskarazko esaldiak grabatuz, ahos horiek teknologietara eraman ahal izateko. Bi lerro nagusi horiez gain, bestelako gaiak era bildu ditugu Marmarin, esaterako, Aurrera Dantza Taldeari buruzkoak. Aurtengo pestetako emanaldian belaunaldi ezberdinetako herritarrak elkartu ziren Ingurutxo eta Larrain-dantza dantzatzeko. Hori bada nahikoa motibo zoriontzeko, baina beste albiste honek ere merezi du zoriontzea: Biz-

kaiko Dantzarien Biltzarrak Dantza Tradizionalaren Esker Ona saria eman die Aurrerako dantzari, hainbeste urtez ezpatadantzari eusteagatik. Zorionak, beraz!!

Beste gai hauek ere badute tokia: Erleta eskola inklusioaren bidean egiten ari den lanketa; Leitzalarreko haritzen mesedetan egiten ari diren lana; Mendialdea Mankomunitateko langilea den Aitor Zabaletak garbiguneaz kontatutakoak; Balikebale lehiaketan gazteen parte hartzea; eta herriko irudi zoragarrien bilduma dotorea, aurreko Pilartxo Sagastibeltzaren eskutik jaso duguna. Eskerrik asko aldizkaria osatzen lagundu duzuen guztioi, eta zuri irakurle, Marmarirekin goza dezazula.



Leitzeko EBK:

Kontsumitzen dugun energiaren ardura hartzera goaz

TALDEAREN SORRERA

Energiaren inguruko kezka baten haritik Leitzako herritar talde bat elkartzen hasi zen. Honakoa zen haien kezka partekatua: norberaren ongizatea lortzeko energiarekiko dugun menpekotasuna handia da gaur egun. **BENETAN BEHARREZKOA AL DA GU ONGI BIZITZEKO HAINBESTE ENERGIA KONTSUMITZEA?**

Hortik abiatuta, gaiaren inguruan hausnartzeko biltzen hasi ziren, eta iriz-

pide batzuk zehaztea beharrezko zela ikusi zuten: alde batetik, kontsumoaren inguruan zentzuz jokatzeko eta murrizketak egitea; eta beste alde batetik, energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

Sorreratik taldeak argi zeukan **MURRIZKETA** beharrezkoa zela, adituek dioten bezala **EZ DA AUKERA BAT, BEHAR BAT BAIZIK**. Izan ere mundu honek “zutik” iraun dezan energiaren kontsumoa eta kontsumitzeko ohiturak aldatu eta murriztu behar ditu-

gu. Hori da taldearen printzipiorik garrantzitsuenak.

Aldi berean, beste helburu bat ere lortu nahi zuten: kontsumitu behar dugun energia guk sortzea modu jasangarri batean, betiere, gure inguruak eskaintzen diguna aprobetxatuz. Beraz, erronka da kontsumituko dugun energia sortzeko gai izatea.

Aipatutako guzti honengatik, sortu da: **ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA**.

ZER DA EBK?

Energia Berriztagarrien Komunitatea da (aurrerantzean EBK). Bilerak egiten hasi zen talde hartatik sortu zen LeitzEKO EBK. Sortzeko prozesua duela 2 urte inguru abiatu zen eta herritar askoren inplikazioari eta gogoari esker aurrera doa, pausoak emanez.

Baina “zer da zehazki energia berriztagarrien komunitatea?”, hori da denoi burura datorkigun lehenbiziko galdera da. Energia komunitatea energia jarduerak antolatzeko eredu bat da, energia sistema eraldatzen modu erabakigarrian lagundu dezakeena. Laburki esanda, energiarekin zerikusia duen edozein ekimen aurrera eramateko tresna litzateke.

DEFINIZIOA: Europako Zuzendarau batek zehazten du zer den Energia Berriztagarrien Komunitatea eta horrela

deskribatzen du: Pertsona fisiko eta juridikoz osatutako entitate juridiko (komunitate) bat da. Partaide (bazkide) eta ingurune hurbilari onura ekonomiko, sozial eta ingurumenarekiko onurak eskaintzea du xede, norbanakoen (herritarren) parte hartzea bultzatu eta efizientzia energetiko eta energia berriztagarrien aldeko apustua eginez. Energia berriztagarrien komunitatea figura sortzearen helburuetako bat herritarrak energiaren arloan kontsumitzaile huts izatetik ekintzaile izatera igarotzea da. Besteak beste, horregatik ahalbidetzen zaie komunitate hauei energia elektrikoaren merkatuan agente izatera.

Oro har, energia berriztagarriei buruz hitz egiten denean lotura zuzena egin ohi da eguzki plakez osatutako instalazio konpartitu batekin. Baina komuni-

tate hauek hori baino askoz gehiago ere badira.

EBK batek izan ditzakeen funtzio edo zerbitzuak honakoak dira, batzuk aipatze aldera:

- Energia kontsumoa murrizteko lan-keta eta estrategiak garatzea
- Energia alorraren inguruko ezagutza bultzatzea.
- Herritarrak energia kudeaketan protagonista izatea.
- Energia subiranotasuna bultzatzea komunitatean hartuz erabakiak.
- Tokiko ekonomia garantzea eta zirkuitu ekonomikoa murrizteko, energiaren arloan erabiltzen ditugun baliabideak bertan gera daitezen.
- Gizarte-kohesio handiagoa sustatzea, guztion artean berdintasunez autogestionatuz



- Guztionak diren baliabideak erabiltzea, egoera zaugarrian dauden bizilagunak babesteko. Formulak bilatu behar dira pertsona zaugarriak EBKren gisako proiektuetan integratzeko.

LEITZAKO EBK-REN SORRERA PROZESUA

Leitzako Udala 2016an hasi zen udalaren hornidurak eta energia kontsumoak aztertu eta doitzeko lanetan.

Lehenik udal eraikinen eta argiteriaren inguruko auditoretza bat egin zen, eta segidan %100 jatorri berriztagarria kontsumitzeko erabakia hartu zuen udalak, eta horrela Goienerren bazkidetu zen eta hornidura guztiak merkatura-tzailez aldatu.

2017-2020 bitartean 1. Energia plana gauzatu zuen, eta modu horretan kontsumoa murriztea (%22) eta aurreztea (%18) lortu zuen.

2021-2023 urteetan 2. Energia plana diseinatu zuen eta aurrerapausoak eman ziren. Hartutako **konpromisoetako bat energia sorkuntzarekin hastea** izan zen.

Momentu horretan Energia Komunitateak sortzen ari ziren batean eta bestean, eta udala, lehen sorkuntza proiektuak herritarrekin bultzatzeko asmoz, EBK sortzeko aukerak aztertzen hasi zen herritar batzuekin.

2021eko irailean interesa izan zezaketan herritarrekin kontaktuan jarri eta biltzeko proposamena egin zien udalak. Egoera energetikoarekiko interes komun bat bazen bildutakoen artean. Oso **talde anitza izan da hasieratik**, izaera anitza eta irekia duena (genero, jatorri, lanbide, egoera ekonomiko askotarikoak), eta horixe da EBK-k izan behar duen ezaugarrietako bat, anitza izatea alegia, ikuspuntu eta interes desberdinak bateratzeko eta etorkizunean energia-komunitatearen kohesio-maila handitzeko, besteak beste. Hemendik sortu zen, beraz, **EBK sortu duen talde sustatzailea**.

2022ko maiatzean herriari aurkeztu genion proiektua, bitartean, ordea, hainbat bilera egin ziren gai ezberdinak jorrazteko:

- Beharrak identifikatzeko
- Helburuak finkatzeko
- Aukerak zerrendatzeko
- Lan taldeak egiteko (Juridiko-administratiboa, teknikoa, komunikazioa)
- Forma juridikoa erabakitzeko
- Lehen proiektua zehaztu eta zirriborratzeko (Udalak kiroldegiko

teilatua erabilera baimendu zuen)

Momentu horretan proiektuak izan zuten erantzuna neurtu nahi genuen taldeak, ea jendeak interesik bazuen jakin nahian. Informazio eskaera bat egin genuen eta astebetean 168 pertsonak helarazi zituzten beraien fakturak eta bazkidetzeko interesa.

Kooperatibaren sorrerak izan zuten harreraren ondoren, estatutuak sortzeko bideari ekin genion, eta kooperatiben erregistroan bueltaka ibili ondoren, apirilean estatutuak onartu zituzten. Horren ondotik, urrian batzar eratzailea egin genuen.

Bitarte horretan proiektuaren definizioa zehazten eta hau finantzatzeko aukerak aztertzen aritu ginen. 2023ko uztailan Herri Aretoan egin zen agerraldian xehetasun guztiak eman genituen eta parte hartuko zuten bazkide bakoitzari instalakuntzan izan zuten aprobetxamenduaren arabera diru ekarpen bat eskatu zitzaion.

Lehenengo txandan baino pertsona gehiagok erakutsi zuten interesa, baina diseinatutako instalakuntzak ez zuten aukera ematen kontsumitzaile gehiago lotzeko, eta ondorioz itxaron zerrenda bat irekitzea erabaki genuen.





Abuztuaren bukaerarako lehen instalakuntzarekin hasteko moduan geunden.

LEHEN PROIEKTUA

Energia Berriztagarrien Komunitate bat herriari aurkezteko garaian, proiektu konkretu batekin plazaratzea beharrezkoa izanzen zela ikusi genuen. Nahiz eta esan bezala, EBK baten helburua askoz zabalagoa den, aurreneko urratsa emateko, fisikoki ikus daitekeen zerbait aurkeztea oso baliagarria zela iruditu zitzaigun. Horrela, “*guk sortu, guk kontsumitzen duguna*” kontzeptuarekin, eguzki plakez osaturiko instalazio partekatu batekin hastea adostu genuen.

Alde batetik, jendaurrean emandako azalpenak ulertu ahal izateko eta bide batez, kontzientziak pixka bat pizteko helburuarekin; eta bestalde, gaur egun eguzki plakak oso eskuragarri jarri den teknologia denez, momentu aproposa

iruditu zitzaigun proiektu honi hasiera emateko.

Autokontsumo partekatuaren bidegarritasuna aurretik aztertzeke bi egiteko izan genituen: instalazioaren kokapena erabakitzea eta aurre kalkulak egitea; kontsumitzen den hornidura puntuen arabera zehazten baitira plaka kopuruak, eta honekin instalazioak behar duen azalera lortzen da.

Esan beharra dago, kokapena bilatzeko garaian, Udalaren babes, laguntza eta parte hartzea ezinbestekoak izan zirela eta halaber, datuak lortzeko garaian, Goienarren bulego teknikitik egindako kalkulu guztiak eta emandako aholkularitza, baita ere.

Instalazioaren kalkuluak egiteko, Goienarren bazkide diren 76 hornidura puntuen kontsumo errealak erabili ziren hasiera batean, emaitza desberdinak lortuz. Puntu honetan, aukerarik onena, inbertsorea 100 KW-etara mugatzea

zela erabaki zen. Legearen arabera, mugatzen ez bada, behar errealetara dimentsionatu behar da inbertsorea eta “ekoizle” jarduera jarri behar da martxan, eta hori ez dator bat EBK baten helburuekin (helburua ez da irabaziak lortzea, baizik eta ahal den neurrian energia kontsumoa gutxitzea eta behar duguna guk sortzea). Jarduera honekin, sarera botatzen den soberakinekin “kontentsazio” bat jasotzen da.

Aurre kalkulu hauek egin zirenean, autokontsumorako energia hura sortzen den puntutik 500 metroko erradio batean kontsumitu behar zen. Ondoren, ordea, legea aldatu, eta 2000 metrotara luzatu zen, eta hornidura puntu gehiago sartzen zirenez, dena birkalkulatu genuen. Aurre kalkulu hauekin ondorioztatu zen Leitzako kiroldegiko teilatua egokia zela eguzki plakak jartzeko.

Paraleloki, EBK baten entitate juridikoa garatzen eta estatutuak finkatzen



aritu ginen, EBK legezatu, sortu eta dena aurrera eman ahal izateko.

Behin EBK sortuta, bazkideak egin eta beraien konpromisoa eskatu genuen partekatutako instalazio fotovoltaikoa aurrera eramateko. Parte hartze konkretuak jakinda, bakoitzari zegozkion autokontsumo koefizienteak atera ziren; koefiziente hauek, aurreko urteko orduko kontsumo kurba errealetik ateratzen dira.

Hau guztia aurrera eramateko, beharrezkoak izan dira herriaren aurrean hainbat aurkezpen egitea eta dokumentazioa eskatzea, eta esan beharra dago, herrian eduki duen harrera oso ona izan dela.

Bitartean, enpresa desberdinei aurrekontuak eskatuz joan ginen. Erabaki-matrizea eratzeko, ondorengo ezaugarriak izan ziren zutabeak: datu ekonomikoak, plaka mota, beraien iraupena, garantia eta bertako enpresa izatea (bertakoa kontsumitzeko helburuarekin, EBK-k bertako garapen sozio-ekonomikorako tresna ere bilakatu baitaitezke).

Gaur egun, instalazioa egina dago eta legezkatze prozesuan oso aurreratuta gaude; tramite burokratikoak oso astunak izan ohi dira (EBK legezkatzeko adibidez, 8 hilabete pasatu genituen zuzenketak aurkezten), baina kasu honetan, gure harridurarako, Industrian, banatzaileetan... aurkeztutako eskaerak,

normalak diren epeak baino azkarrago onartu dizkigute. Puntu honetan, ahalik eta azkarren, bazkideek kontratu aldaketak egin behar dituzte eta horretarako aholku batzuk emanen ditugu. Ondoren, sinatu eta martxan hasiko gara!

ETORKIZUNEN AUKERAK

EBK-k ibilbide luzea du aurretik, ez dugu ahaztu behar energiarekin zerikusia izan dezakeen edozein proiektu, zerbitzu edo ekimen martxan jartzeko sortua dela eta bide horretan energia gutxiago kontsumitzen ikastea eta behar dugun energia jatorri berriztagarrikoa izatea dela helburua.

Energia sorkuntza

Lehenengo autokontsumo instalakuntza fotovoltaikoa martxan jarri dugu. Egin den instalazio honekin kooperatibako kide egin diren 144 horniduretan kontsumitzen den **energia elektrikoaren %20** besterik ez dugu sortuko.

Dagoeneko 198 bazkide ditu kooperatibak eta lehenengo instalakuntzan parte hartzeko aukera izan ez zuten 46 bazkide hurrengo instalakuntzan parte hartzeko prest daude. Bestalde, bazkide izan nahi duen herritar gehiago hurbiltzea espero dugu, izan norbanako, dena, enpresa, auzokide, elkarte ...

Instalakuntza FV gehiago egiteko asmoa dugu, eta horretarako eguzki pla-

kak jartzeko kokapenak bilatzen ari gara, eta laster emanen dugu horren berri.

Energia elektrikoaren sorkuntzarekin hasi bagara ere, gure lurraldean energia gehiago kontsumitzen dugu etxeak berotzen, eta hasieratik dugu epe motzeko helburu gure basoetako egurra erre ahal izateko beharrezkoa dugun kudeaketa kolektiboa. **Tokian-tokiko baliabideak erabiltzea** ezinbestekoa da trantsizio energetiko jasangarri bat egiteko.

Gaur egun loteen bidez ematen diguten egurra moztu, basotik atera eta etxeratze tresnak eta ezagutza behar ditugu, eta askotan astirik ere ez dugu. Bazkideok dugun behar horri irtenbidea bilatu nahi diogu eta horretarako dauden aukerak aztertzen hastera goaz EBK-tik.

Bestalde, energia berriztagarria sortu eta gure kontsumoetan eraginkorrak izateaz gain, baditugu beste helburu batzuk: sorkuntzarekin autonomia irabaztea eta burujabe izatea. Helburu horiek kontuan hartuz, beraz, ezinbestekoa izanen da energia gutxiago kontsumitzen ikastea. Eta jendea behar horretaz jabetzeko formatua eta informatua egotea komeni da, eta horretan laguntzeko tailer, hitzaldi eta ikastaroak antolatuko ditugu.

Bada epe motzean dugun beste erronka bat ere, kooperatibaren lehen batzar orokorra egitea eta hori heldu den urteko ekaina baino lehen antolatu beharko dugu.

Batzar horretan EBK-ren asmoen berri emanen da, eta era berean, arlo ezberdinen inguruko proposamen zehatzen gaineko erabakiak hartuko dira.

Bukatzeko, EBK-ko bazkide izatera eta lanean gabiltzan lantaldeetan parte hartzera gonbidatu nahi dugu jendea. Ekimenak herrian izan duen harrerarekin eta orain arte egindakoarekin oso pozik gaude eta horrela izaten jarraitzea dugu helburu.

LeitzEKO EBK

Eskatu eta eskaini

EUSKARA!

Udazkenean Leitzan euskara ikastaro bat antolatu zen herriko establezimendu eta dendetako langileentzat, erosketak egiterakoan herritarrek haiekin euskaraz egiteko aukera izan dezaten. Izan ere herrian bada hainbat dendari euskara ongi jakin ez arren ulertzeko gaitasuna duena, eta gehiago ulertzeko eta ikasteko gogoia duena. Horiengan pentsatuta euskara ikastaro labur bat antolatu zuten IKA Euskaltegiak eta Euskara eta Gizarte Zerbitzuek. Oinarrizko hiztegia landuz hainbat astez bildu dira euskaltegian euskara jasotzeko asmoz.

Jarrera eta ohitura kontua da, azken finean, biak ala biak funtsezkoak baitira euskaraz ikasi nahi duenarentzat. Ikastea da lehenbiziko urratsa, eta gainerakoekin egiten hastea bigarrena. Horrek, jakina, ohitura aldaketa bat ekarriko du, orain arte euskaraz egiten ez zuen herritarrekin hemendik aurrera egiten hasteko bidea irekitzen baita.

Ikasten aritu denari begira jarrita, ikastaroak integrazioarako bidea ere ematen du, bertako hizkuntzara eta kulturara gerturatuz. Badu, ordea, beste helburu bat ere, bezero diren herritarrek, erosketak egiterakoan, euren hizkuntzan egiteko aukera izatea. Tximutxe Euskara Taldeak bideo bat grabatu du ikastaroan parte hartu zuten zenbait dendari-ostalariekin haien ahalegina txalotuz. Bideo hori Euskararen Nazioarteko Egunean zabaldu zuten herritarren artean.

Erosketak egiterakoan hartu kontuan beraz, mostradorearen bestaldean dagoen saltzaileak gustura hartuko duela euskaraz eskatzea, poliki bada ere egin diezaiegun euskaraz. Keinu txiki horiek asko eskertzen ditu euskal hiztunak, eta ikasten ari denaren ahalegina benetan estimatzen du bezero euskaldunak.

Eskaini eta eskatu euskaraz herriko denda eta establezimenduetan!



Bixigarri fruta-denda.



Mokadutxo delicatessen-denda.



Musunzar jatetxea.



Grabazioa egiten erakusten.

GAITU, teknologiek ere euskaraz hitz egin dezaten

Euskarri digitalak egunerokoan erabiltzen ditugu, eta gero eta gehiago, gainera. Horietako batzuk ahots bidez funtzionatzen dute: Siri, Alexa edo Cortana izenekoek adibidez. Gailu hauek ahoz erantzuten dute ahoz egin zaien galderari, esaterako, *ze eguraldi egingen du bihar? Zenbat kilometro dau-de Leitzatik Baionara? Zein den jaki baten errezeta?* ...Guk jakin nahi dugun edozein informazio eska diezaiekegu.

Kontua da, makina digital horiek ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, alema-

nieraz, italieraz eta japonieraz hitz egiten dutela eta hemendik aurrera euskaraz ere egin dezaten lortu nahi da. Horretarako GAITU egitasmoa jarri da martxan, Common Voice webgunearen bidez ahotsak biltzeko.

Hari horri tiraka erronka berri bat plazaratu dute egitasmoaren antolatzaileek: milaka ahots behar dituzte makinek euskaraz ulertu eta hitz egin dezaten.

Helburua da, beraz, milaka hiztun lortzea, *Common Voice-Gaitu* webgunean esaldi jakin batzuk euskaraz esan

eta grabatu ahal izateko. Behin grabazioak eginda beste hiztun batzuek entzun eta balidatu egingen dituzte, grabatutako esaldiak ontzat emanez edo akatsak baldin badituzte, baztertuz.

ZURE AHOTSA GARRANTZITSUA DA

Ahots asko eta askotarikoak behar dituzte: adin tarte, genero eta mota guztietakoak, betiere 20 urtetik gorakoak. Eta zurea ere bai.

Guztiak bilduz ahotsen datu-basea sortuko da, eta hortik abiatuz ahots-sin-

tesiareen teknologian diharduten enpresek euskarazko tresnak eta aplikazioak garatu ahal izanen dituzte. Ekimen irekia da, irabazi-asmorik gabea eta kolaboratiboa.

PREST AL ZAUDE ERRONKAN PARTE HARTZEKO?

Oso erraza da. Sartu www.gaitu.eus helbidean, klikatu “eman zure ahotsa” jartzen duen ikonoan, eta ondoren irekiko den pantailan ezkerrean dagoen *Hitz egin, grabatu zure ahotsa* jartzen duen tokian mikrofonoan sakatu.

Leitzan ere parte hartu dugu GAITUn, egitamorako ahotsak bilduz. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean hain justu ere, grabazio saioa antolatu zuen Leitzako Tximutxe euskara taldeak. Hitzordua eguerdian izan zen, herriko plazan, eta jende dezente arri-matu zen mugikorrak eta kaskoak hartuta. Herritar bakoitzak zegozkion 5 esaldiak grabatu zituen, eta parte hartu zuten batzuek, gainera, bestek grabatutako esaldiak balidatzeko ere hartu zuten tartea. Hori ere eskatu baitute GAITUkoek, eginak daudenak entzun eta ongi badaude edo zuzenak badira onartzeko.


Nolanahi ere, grabazioak ez dira plazako saioan amaitu, hemendik aurrera ere grabatzen jarrai baitaiteke, etxean edo nahi den tokian. Izan ere, Gaituren sentsibilizazio eta zabalpen kanpaina abenduaren 3an bukatu bazen ere, Common-Voice webguneak irekita jarraituko du, nahi duenak esaldiak grabatzen aritzeko.

Leitzan bezala, Euskal herriko beste hainbat herritan ere antzeko grabazio saioak antolatu zituzten Euskararen Egunaren bueltan. Pentsa liteke beraz, hango eta hemengo euskalkiekin ahotsen datu-base ederra osatu izan dela!

Guztion artean ekarpen polita egin genion gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenari.



Mugikorra eskuan.



Kaskoak jantzita grabatzen.



Grabazio saioa.

Leitza Pilartxo

Sagastibeltzaren begietan

Argazkien bitartez herria nola ikusten dugun erakutsi nahi izaten dugu atal honen bidez, eta aurtengoan Pilartxo Sagastibeltzaren prismatik begiratuta ikusiko dugu. Argazki dotoreak eskaini dizkigu Marmarirako, mendi tontorretik zein kaletik ateratakoak, urtaro ezberdinetakoak, baita bere afizioari lotutakoak ere, atabalak eta txistuak toki esanguratsua baitute Pilartxoren bizitzan.



Atsedena.



Eguzkia laino artean.



Erasote.



Zuhaitza elurtuta.



Kollezintzarriak.



Eskean.



Leitza antenatik.



Madarieta iluntzen.



Urepel.



Basakabitik Goizueta aldera.



San Juan bezpera.



Leitza-Uhitziko gañeko bidea.



Zuhaitza eguzki artean.

Erleta Eskola IHP inklusiborantz



Gaur egun geroz eta azkarrago aldatzen den gizarte honetan gure herrietako haur eta gaztetxoek gizarte horretara egokitu ahal izateko tresna eta baliabide berriak behar dituzte. Hezkuntzak ikasle guztien garapena ahalbidetu behar duen honetan, hezkuntza sistemarentzat ere erronka berri bat sortu da.

Erronka berri honi erantzuteko sortu da **hezkuntza inklusibo** kontzeptua. Hezkuntza inklusiboa definitzea konplexua den kontzeptu bat da aldagai desberdinek eragiten dutelako. Hezkuntza-inklusioarekin guztiz konprometituta dauden zenbait egilek (Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008) aldarrikatutako definizioaz baliatuko gara eskola inklusiboa zer den azaltzeko: haur eta gazte guztiak hezkuntzara iritsi daitezen

bermeak ematen dituen da eskola inklusiboa; edonola ere, ahotan darabilgun hezkuntza hori ez da edonolako, **kali-tatezko hezkuntza-sistema** bat baizik, denei **aukera-berdintasuna**, **justizia** eta **ekitatea** bermatzen diena.

Dena dela, ez da aski hezkuntza-eremuan inklusioa martxan jartzea, beharrezkoa baita denentzako jendarte-sare erkideak eraikitzea ere, denak elkarrekin bizi gaitezen, denek ikas dezagun elkarrekin, denei baliagarri gerta dakigun; denei, bai, baina batez ere ikasleei.

Hori dela eta, 2018-2019 ikasturtean mahai gainean jarri zen eskolako metodologiaren ibilbidea. Metodologia aktiboen inguruko interesa bazen eta Hezkuntza departamentutik, PROEDUCAR/HEZIGARRI proposamena iritsi zenean,

Klaustroak eraldaketa honen aldeko apustua egin zuen. 2019/2020 ikasturtean hasi ginen formakuntzarekin. Eskolak ordezkarri bat zuen formakuntza jasotzen zuena eta bere ardura zen lan taldean informazioa ematea eta ziklo guztietara iristea. Honetaz gain, eskolan klaustro guztiari zuzendutako formakuntza jaso zen eta poliki-poliki ekimen ezberdinak martxan jarri genituen, gure beldur eta ekintza hauek sortu zituzten gora behera guztiekin.



HEZIGARRI programaren helburu orokorra da **eskola-porrotaren eta eskola-uzte goiztiarraren aurka borrokatzea** eta ikasle guztien **hezkuntza-inklusioa eta eskola-arrakasta bultzatzea**, ikastetxe bakoitzak Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekin duen lankidetzakontratuan islatzen den hobekuntza-proiektu bat ezarriz eta gauzatuz.

4 ikasturteetan eztabaida asko izan ditugu eta hainbat erabaki hartu ditugu. Gauzak honela gaur egun aurrera eramaten ditugun ekintzak, honakoak dira:

- **IRAKASKUNTZA PARTEKATUA:** ikasgeletan bi irakasle egoten dira ikasgaiak aurrera eramateko.
- **TUTORE IRAKURLE:** Lehen Hezkuntzako ikasle zaharrenak Haur edo Lehen Hezkuntzako ikasleekin biltzen dira, eta elkarrekin irakurtzen dute liburu bat, kontaketa edo eta entzumenaz gozatuz.
- **SOLASALDI DIALOGIKOAK:** ikas taldeak irakurritako testu baten inguruko solasaldia burutzen du, denon iritzia eta ekarpenak onartuz.

- **TAILERRAK:** ikasleek ziklo mailan proposatzen diren ekintzetan parte hartzen dute. Taldekatzeak mistoak dira, hots, gela ezberdinetakoak nahasten dira ekintza bakoitzean.
- **ATE IREKIAK:** Haur Hezkuntzako geletako atea irekitzen dira eta ikasleek, modu librean, espazio bakoitzean proposatzen den ekintza burutu dezakete.
- **TALDE ELKARRERAGILEAK:** irakasleak proposatutako ekintzak, ikasleek talde txikietan aurrera eramaten dituzte, moderatzaile batek gidatuta. Moderatzaile rola, pertsona heldu batek hartzen du eta moderatzailea egonkor egoten da. Ikasleak dira txokotik txokora aldatzen direnak. Moderatzaile horiek eskola komunitateko kide ezberdinak izan daitezke.
- **IKKI:** ikasketa kooperatiboa ikasle-talde txikien erabilera didaktikoa da. Talde horietan ikasleek elkarrekin lan egiten dute norberaren eta besteen ikasketa maila maximizatzeke.
- **PRAKTIKA ONAK** ekimenaren bai-

tan, irakasleek ikasturtean zehar geletako atea zabalik izaten ditugu eta gure artean ikasteko edo eta zenbait egoera behatzeko erabiltzen ditugu zenbait tarte.

Aurreko ibilbide osoa kontutan harturik, eraldaketa hauek guztiak gure Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan islatzeko unea iritsi zaigu. Hori dela eta, 23/24 ikasturtean IHP inklusioa eraldatzen hastea da gure asmoa. Horretarako, joan den ikasturtean ikastetxeko bi pertsonen honen inguruko formakuntza jaso zuten Coral Elizondorekin eta ikasturte honetan lan talde bat eratu da horretarako, Coral Elizondoren aholkuei jarraiki. Lan talde honek antolatuta, sentsibilizazio saioak egingen dira bai klaustrakideekin, bai familiekin baita ikasleekin ere. Orain arte bezalaxe, hezkuntza komunitatearen partaidetza handitzea xede dugunez, eraldaketa honetan ere parte hartzeko deia luzatu nahi dugu.

Denona den ERLETA eskola elkarrekin eraiki dezagun!

Leitzalarreako haritzak berreskuratzen

Leitzalarrea.

Leitzalarrean, azkeneko urte hauetan, hariztietan egindako lan ugari egin dira. Kontuan hartu da, horretarako, pagadi eta hariztiaren arteko trantsizio gune bat dela eta pagoa haritzari lekua kentzen ari zaiola.

Pagoak, modu gordin batean esanda, 700 metroko altueratik gora lortzen du bere leku aproposa, hau da, leitzaren kasuan, basakabi eta iztegiko kaskotik gora. 500 Metrotik behera, berriz, bertako haritzak du bere leku aproposa. Eta tarte horretan, beraz, 500-700 metro artean, trantsizio tarte bat dago eta egoera desberdinen arabera (esposizioa, lur mota eta horren sakonera, lai-

noa, egon den ustiaketa mota...) Baso mota bat edo bestea topa dezakegu, edo biak nahasturik. Bi basoak elkartzen diren inguru horretan pagoa baino gehiago haritza nagusitzen da eta, hori dela eta, gelditzen diren hariztiak mantentzeko leitzako udaletik, nafarroako gobernuko basozainekin elkarlanean, azkeneko urte hauetan zenbait lan egiten ari gara.

Leitzalarrean gelditzen diren harizti gutxi horiek mantentzeko eta horien egoera hobetzeko txaran, malloan, sagarmian, urkizur, sarasainen, izaietan eta olantzen urte hauetan ondorengo lanak egin dira:

Txara

- Duela 30 urte errepidearen goiko aldean bakanketa bat egin genuen eta duela 15 urte sutarako egurra markatu zen.
- Beheko aldean duela 2 urte zati bat bakandu genuen eta orain falta den zatia bakantzen ari gara.

Malao

- Errepidearen goiko aldean gelditzen diren haritzei traba egiten zieten pagoak kendu genituen.
- Errepidearen beheko aldean hariztia bakantzen ari gara.

Sagarmia

- Duela 20 urte hariztian zeuden pago guztiak kendu genituen eta ondoren aziendentzako itxitua egin zen. Beste 8 urtez udako garbiketak egin genituen

eta landareari ateratzen zen sasia moztu egin zitzaion. Iaz haritz-landare, hostazuri, urki... Landareen artean zetozen pago landareak moztu genituen eta gainontzeko landareak utzi egin ziren.

Urkizu

- Duela 15 urte haritza eta pagoa dagoen basoan markatze bat egin zen eta lehentasuna haritzei eman zitzaien, horiei argitasuna murrizten zieten pagoak markatuz.
- Duela 5 urte urkizuko zentralaren ondoan dagoen haritzia markatu genuen eta bertan zeuden pagoak kendu ziren.

Sarasain eta izaieta

- Iaz izaietan eta sarasainen haritzia mantentzeko helburuarekin pago guztia kendu da eta, basoa ustiatzen bukatzen denean, utzitako adarrak bilduko dira, itxitu berriak egingo dira eta haritz zuhaitz gutxi dagoen lekuan haritza landatuko da.

Olantz

- Gelditzen diren haritz handiei lehia egiten zieten pagoekin sutarako egurrak markatu ziren.

ZERGATIK DA HORREN GARRANTZITSUA HARITZIA MANTENTZEA?

Betidantik leitzarrek oso ongi jakin izan dute haritza zein garrantzitsua den. Historikoki haritza ezinbestekoa izan da leitzan dauden baserri eta bordak eraikitzeko, horien egitura, latak, leihoak, atak... Haritzarekin egiten baitziren. Herritarrek moztu eta ongi lehertzeko behar den ilargia eta garaia aski ongi ezagutzen dituzte. Ikusi besterik ez da egin behar horrenbeste urte pasa ondoren udaletxeko eskailerak igota ikusten diren habeak horrenbeste urte pasa eta gero zer egoera onean dauden.

Gainera, udazkenean herriko txerriak herritik urdinolara gaztainondoarekin eta haritz ezkurarekin gizontzera era-



Haritza hazten.

maten ziren, bertan bakoitzak bere txabola baitzeukan. Udazkena pasa ondoren asko hobetzen ziren txerrikumeak eta, ondoren, saldu edo etxerako gordetzen zituzten.

Ikuspegi ekologiko batetik, oso baso aberatsa da. Pagadietan ez bezala, zuhaitzen azpian zuhaitz eta zuhaixa desberdin ugari hazten da: otsalizarra, lizarra, urkia, sahasa, gorostia, elorria.... Eta horri esker pagadian baino animalia desberdin gehiagok bizitzeko aukera topatzen dute, 20 txori mota desberdin bizi daitezke baso mota honetan.

Alde ekonomikotik, gainera, bertako haritzaren zura eta egurra oso estimatua da.

ZERGATIK BABESTU BEHAR DITUGU HARIZTIAK?

Leitzako hariztiak gaur egun daukaten azalera baino askoz handiagoa zuten eta urteetan jasan duen presioarengatik gero eta azalera gutxiago izatera ailegatu dira. Besteak beste:

- Herrigunean dauden lautadetan eta inguruko zelaietan herria, industria, larreak, baserriak... Eraikitzeko moztu ziren.

- Haritzaren zura eta egurra oso estimatua izan da eta balio ekonomiko handikoa eta garai batean saltzeko haritz asko markatu zen.
- Trenbide-trabesak egiteko ere haritz asko markatu zen (leitzalarrean harizti batzuk m³-tan kubikatu beharrean, haritz horretatik zenbat traba sa aterako ziren kalkulatuta kubikatu ziren).
- Leitzalarreko sarasainen, gutxienez, ola bat zegoen eta urdinolan beste bat. Horiek hornitzeko egur asko behar zen eta haritza ere erabiliko zuten.
- Duela gutxi arte baserri eta etxebizitzak berotzeko, besteak beste, haritz-egurra eta horrekin egindako ikatza erabiltzen ziren.

Laburbilduz, pagoa landare-kolonizatzailea denez, dauzkagun hariztietan landarea ateratzea lortzen du eta, haritz landareari lehentasuna ez bazaio ematen, pixkanaka haritza menderatzen du eta pagadi bihurtzen du.

NOLA KUDEATZEN DITUGU HARIZTIAK

Azkeneko urteetan hariztietan markatzeak egin direnean, haritzak babestez



Txara.

gain, basoaren beste ezaugarri batzuk ere kontuan hartu ditugu, bertan bizi diren animaliak eta gainerako zuhaitz eta landareak esate baterako. Horretarako, zura sortzeaz gainera, animaliei jana edota gordelekua emango dieten zuhaitzak markatu gabe gelditzen dira. Zuhaitz ihartuak uzten dira, adibidez. Zuhaitzak usteltze prozesu horretan intsektu asko sortzen ditu eta hortik hegaztiak eta sagu-zaharrek, batez ere, elikatze behar duten jan ugari lortzen dute.

Zutik utzitako zuhaitz ihartuetan, okilek intsektuak jaten dituzte eta, gainera, zuhaitz altu eta gizenetan kabia egiteko ere leku aproposa topatzen dute. Okilek (leitzan okil berdea eta okil handia daude), oro har, urtero kabi desberdin bat egiten dute eta, hori horrela, beste animalia batzuei kabia egina uzten diete: katagorriari, urubi arruntari, garrapoari (zuloa handiegia denez, lohiarekin zuloa txikitu egiten duena) eta baita sagu-zaharrei ere.

Zuhaitz mugarratu zaharrak ere, zur aldetik balio ekonomiko handirik ez dutenak, oso baliagarriak dira bertan animalia askok beren kumeak hazteko

eta negua pasatzeko ezinbestekoak dituztelako.

Hariztiaren ekosistema hobetzeko anfibioei ur putzu bat ere egin genien, leitzalarreak daukan ur putzu iraunkorren falta dela eta. Anfibioek ugaltzeko ur geldoak behar dituzte eta horregatik leku lasai hori egitea proposatu zen, putzurik ez baldin badago, ur putzua dagoen edozein lekutan jartzen dituztelako arrautzak eta horietako gehienak galdu egiten direlako: pistetan sortzen diren putzuetan jarri eta kotxearekin pasatzerakoan zapaltzen direlako edo arrautzatik atera baino lehen lehortzen direlako. Putzu hau erabiltzen duten anfibioak hauek dira: uhandre palmatus, baso igel gorria, apo arrunta eta hariztiarekin erlazionatuta dagoen baso-igel jauzkaria ere egon daiteke.

Izaietan, haritz handi batzuetan sagu-zaharrei kabiak ere jarri dizkiegu horiek berreskuratzeko asmoz, naturan duten garrantziarengatik. Besteak beste, sagu-zahar batek intsektuak jatea oso lagungarri zaigu, sagu-zahar bakoitzak bere pisuaren herena haina intsektu jaten baititu. Kabi horiekin, hortaz, bertako sagu-zaharren populazioa handitu nahi dugu.

ETA PAGADIETAN ZER?

Pagoak ere garrantzi handia dauka leitzako mendietan. Haritza babestearekin ez da pagoa zuhaitz txarra denik pentsatu behar, ezta gutxiago ere. Pagadietan markatzeak egiten direnean ekosistema bere osotasunean hartzen da, zuraz haratago; pago ihartuak, mugarratutako zuhaitzak eta abar, zutik mantentzen dira, horietan okilek nahiz gainerako txori eta animalia batzuek beren kabiak egin eta jana eta gordelekua izan ditzaten.

Era berean, landarea etortzea lortzen denean eta hazia botatzeko utzi diren zuhaitzak markatu behar direnean azken mozketa egiteko, animaliek babeslekua izateko hektareako 5 bat pago zutik mantentzen dira.

Pagadiak, zura eta egurra sortzeaz gainera, onura asko ekartzen ditu; esate baterako, hostoekin sortzen duen inguru hezearekin anfibio batzuk bizitzeko aukera daukate, horien artean baso igel gorria edo urandrea. Era berean, hezetasun horrekin iturriak urte osoan zehar urarekin mantentzea ere lortzen dute.

Pagoaren egurra leitzarren artean oso estimatua da, haritzarena baino lehenago lehortzen delako eta lehenago erretzearekin azkarrago berotzen duelako. Nola ez, pagadietan ateratzen den ondo beltza ere oso estimatua da.

ONDORIOAK

Honekin guztiarekin argi dago, bi basoek leitzan garrantzi handia izan arren, eta leitzalarrean hariztia mantendu nahi baldin bada, leku horietan haritzaren aldeko baso-kudeaketa egin behar dugula. Hori horrela egin ezean eta denborarekin haritzak zahartzen diren heinean, pagoak haritz-landare berria ateratzen uzten ez duenez, pagadi bihurtuko lirateke eta leitzalarreko harizti horiek desagertuko lirateke edo haien azalera asko murriztuko litzateke.

Mikel Gulina Tirapu
(Leitzako Udaleko basozaina)



BUELTA ETA BUELTA DANTZAN

Pestak bukatu ziren aspaldi, eta negu gorrian sartzekoak gara segituan, baina egun haietan bizi izan genituen uneak gogorarazteko edozein momentu da ona. Gu dantzan gabiltza buru-belarri, hilabete hauetan ditugun dantza-saioak prestatzeko asmoz. Hala ere, abuztuaren 12an eskaini genuen ikuskizunarekin akordatu gara behin baino gehiagotan. 160 bat pertsona ibili ginen Ingurutxoaz eta Larraindantzaz gozatuz, herriaren babes eta maitasun guziarekin.

Plazara atera aurretik, dantzari ohiak elkartu eta denak elkarrekin dantzatzeko asmo hori etorri zitzaigunean, galdetegi bat zabaldu genuen eta 180 eran-

tzunetik gora jaso genituen, esanez noiz hasi ziren dantzan, nor izan zuten irakasle eta ze dantza ikasi zituzten. Eta uste dugu erantzunen berri emateak merezi duela, belaunaldiz belaunaldi finkatzen joan den errealitate bat delako: Leitzan badago dantzarako afizio bat, lehen ere bazegoelako. Eta espero dugu etorkizunera begira ere, herriko neska zein mutilak taldera batzen hastea.

Jaso genituen erantzunetatik bada bat esanguratsua dena: dantza-klaseak orain dela 60 urte inguru hasi ziren gurean. Badugu erantzun bat esaten duena, gutxi gora behera, 1962. urtean hasi zela dantza ikasten. Badira hamarkada bat beranduago ere hasi zirenak, 1973, 1974

urteen bueltan hasi zirenak, hain zuzen. Garai hartan ohikoena Leitzeko Ingurutxo eta Ezpatadantza ikastea zen, Luis Erbiti maisu zela.

Urteak pasa ahala, argi dago dantza taldeak beste norabide bat hartu duela, edo beste norabide bat baino, beste indar bat. Orain dantzari asko gabiltza taldean, eta gure herriko bi dantza berezkoek gain, beste hainbeste dantza ere bada-kizkigu. Aurten ere ausartu gara gure tradizioetatik abiatutako ikuskizun berezi bat prestatzen, eta horretan dihardugu koreografiak behar bezala ateratzeko abilezia landuz. Pixkanaka hasi gara kanpora ere ateratzen: aurrena Doneztebera, hemendik aurrera ikusiko



Belaunaldi ezberdinetako dantzariak aurtengo pestetan.

dugu noraino ailegatu gaitezkeen. Pre-sarik ez dugu; gogoia, ordea, bai.

Egia da azken urte hau polita izan dela Aurrera Dantza Taldearentzat, argi dago herriak auspotutako saioetan asko gozatu dugula. Lan guzi horrek, kontrara, badauka lan handia atzetik, eta aurten ere ez da beste modu batera izanen. Izan ere, prestatuta ditugun saioak kanpora atera nahi ditugu, eta azaro bukaeran jaso dugun sariak bide horretan segitzera bultzatzen gaitu. Izan ere, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak VII. Dantza Tradizionalaren Esker Ona saria eman digu, hainbeste urtez gure Ezpatadantza den bezala mantendu, ikasi eta dantzatzeagatik.

Badugu buruan bestelako ideiarik. Batik bat, sueltoan ikasten hasi nahi dugu, batek daki Seguran ospatzen den Euskal Herriko Dantza Txapelketan gure kiderik aterako ote den berriro ere. Bien bitartean, pixkanaka landuz joan nahi dugu, erakusketaren bat ere eskaintzeko asmoz. Kantu bazkariak arten izan duen arrakasta esanguratsua ikusirik, pentsatu dugu 2024an berriz antolatzea



polita izan daitekeela, denon artean eguna ospatuz, elkarrekin kantuan eta dantzaz arituz. Plan gehiago ere izan baditugu, baina hobe izanen dugu oraingoz ez aurreratzea, oraindik ixteke baitaude hauetako batzuk.

Kontatu dugun guztiak jendea eskatzen du, jakina, baita konpromezua ere, dantza taldean gaudenon konpromezua, eta horri ere heldu nahiko genioke. Argi dago Aurrera Dantza Taldeak baduela oraina eta, gauzak ildo beretik joanen badira, etorkizuna ere bai. Baina inoiz

ez da momentu txarra gure ateak irekiak daudela gogorarazteko, eta batez ere, dudetan dauden guzti horiek animatzeko: inoiz pentsatu baduzu gustora ibiliko zinatekeela entseguetan, kanpoan ikuskizunak eskainiz, herriko plazan Ingurutxoia edo Ezpatadantza dantzatzu, edo, zergatik ez esan, antolatzen ditugun afari eta festetan parte hartuz, etorri noiznahi gurera, probatzera bada ere. Lotsa, lapurtzeko behar da, ez dantzatzeko.

Aurrera Dantza Taldea



Sartu guztiak.

BILBON SARIA JASOTZEN

Duela zazpi urte Bizkaiko Dantzarien Biltzarra dantza tradizionala omentzeko eta dantza taldeen lana aitortzeko sari banaketa bat antolatzen hasi zen, Dantza Tradizionalaren Esker Ona sariak izenekoa. Aurten sarietako bat Aurrera Dantza Taldeari eman diote urte luzez ezpatadantzari eusteagatik eta gaur egun dantzatzan segitzeagatik. Azaroaren 28an egin zen VII. edizioaren sari banaketa Bilboko Euskalduna Jauregian, eta bertan izan zen Aurrera Dantza taldeko ordezkari bat: Alaitz, Maria, Andoni, Hegoi, Eider, Nahia, Axier eta Miel dantzariak; Jose Luis, Pilartxo eta Soro txistulariak eta Joseba Sagastibeltza. **ZORIONAK!**



Joseba Sagastibeltza saria jasotzen.



Aitor bidoiak garraiatzen.

Leitzako garbigunea

Bost urte trasteak biltzen eta birziklatzen

Aitor Zabaleta, Mendialdea Mankomunitateko hondakinen kudeaketako langilearekin hizketan.

EREMUA:

Leitza Goizueta, Areso, Arano, Lekunberri eta Larraun (Gorriti, Errazkin, Baraibar, Iribas, Astiz, Alli, Arruitz, Aldatz eta Etxarri).

BILKETA ZERBITZUA:

- Arropa
- Sukaldeko olioak
- Etxeetako zaborrak
- Gaikako bilketak (beira, papera, plastikoa)
- Birziklatze gunea
- Tamaina handiko hondakinak

Gure eskualdean Mendialdea Mankomunitateak kudeatzen du hondakinen birziklatzea, eta hondakinen bilketaz, garraioaz eta tratamenduaz arduratzen da. Horretarako aspaldian jarri ziren herrian kolore eta tamaina ezberdinetako edukiontzia. Eta ezinbestekoa da zabor bakoitza bere tokira eta nahastu gabe botatzea, bestela ezin baita egoki birziklatu.

Papera, plastikoa, janaria, olio eta arropa birziklatzen ikasi dugu, eta azkeneko urtetan traste handiengan jarri dugu arreta. Etxeko obra txikietako hondakinak, egurra, gailu elektriko eta elektronikoak, altzariak.... Horiek trabatik kendu eta txukun sailkatzeko garbigunea sortu zen. 2018ko abenduaren 17an ire-

ki zen, hain zuzen ere, **Leitzako Garbigunea**.

Aitor Zabaleta da garbiguneko langilea. Oso lan eskertua dela esan digu, jendeak pozik hartzen duela zerbitzua, eta horrek asko betetzen duela. Eta lan honi esker eskualdeko zenbait herri txiki ezagutu dituela aitortu du.

Garbigunean, egurra, txatarra eta etxetresna elektrikoak dira gehien biltzen dena. Hondatu ahala segituan botatzen dugula dio Aitorrek, eta gaineratu du “oraindik lan handia egin behar dugu kontzientziatzen, hondatutakoa konpontzen saiatu beharrean bota egiten dugulako, eta horrek traste asko sorrarazten du”. Birziklatzearen garrantzia nabarmendu du “behar duguna baino

Garbiguneak

ORDUTEGIA

Leitza 09:00 -13:00 / 15:00- 17:30
 Asteartean: 09:00 -13:00 / 15:00- 17:30
 Ostegunetan: 15:30-19:00
 Hilabeteko 2. larunbatean 09:00 -14:00

Goizueta 14:00 -16:30
 Asteleheneretan: 14:00 -16:30
 Hilabeteko 1. larunbatean: 09:30 -13:30

Zer ekarri dezakezu?



Zer ezin duzu ekarri?



Bestelako hondakinak ekartzeko aurretiko baimena Mankomunitatean eskatu

Mendialdea Mankomunitatea info@mendialdea.eus 948 510 444



Garbigunea eskuorria.

gehiago ari gara kontsumitzen eta gure lurrak ez du behar adina baliabide horri guztiari irtenbidea emateko". Herritarrengan eragiteko sortu zen kanpainan erabili zuten leloa esanguratsua da zentzu horretan, *hondakinik onena, sortzen ez dena*. Eta hala berresten du Aitorrek ere "ahalik eta gutxien sortu behar dugu, zaila den arren. Izan ere erostera eta kontsumitzera garamatzen gizaratean bizi gara".

Gehien eta hobekien birziklatzen dutenei buruz galdetuta 40 urtetik gorako herritarrek egiten dutela erantzun du.

Kontzientzia pizteko lanketa etxetik hastearen garrantzia ere nabarmendu du, haurrei txikitatik erakustea beharrezkoa baita. Haiekin joan zaborra botatzera, garbigunera... eta poliki poliki keinu txiki horiek errutina bihurtuko dira, eta etorkizunean oharkabean eginen dituzten urratsak izanen dira.

Bitartean, ordea, asko dugu egiteko, eta asko da sortzen duguna. Hori egoki bideratzeko elkarte eta enpresa batek laguntzen dute gure eskualdean. Bolumen handikoak eta etxetresna elektrikoak, esaterako, Traperos de Emausek



Herritarra trastea garbigunera ekartzen.

eramaten ditu, eta konpondu eta egoera onean jartzen dituzte, berriro saltzeko, beraz "bada alternatiba polit bat". Bestetik, Ecoiruña dago eta hauek pinturak, disolbatzaileak eta halako produktuak eramaten dituzte, eta era berean Leitza biltzen den hondakinak garraiatzeaz ere arduratzen da. Horretarako kamioi ezberdinak etortzen dira, hondakin bakoitzerako bat: egurra, txatarrak, obretako hondakinak... bereizita eraman behar baitira birziklatzera.

Bukatzeko, Aitorri kezka sortzen dion gaia aipatu dugu, zaborrak eta hondakinak edukiontzietatik kanpo ikustea. Zoritxarrez maiz gertatzen da. Bere horretan utzitako poltsak ikusten ditu, eta askotan, gainera, hor botatzekoak ez diren trasteak izaten dira. Horrelakorik errepikatu ez dadin bereziki azpimarratu nahi du horretarako dagoela garbigunea, "etxean edo bajaran garbiketa egin ondoren atera ditugun trasteak garbigunera eraman behar ditugu, horretarako sortua baita propio". Planetak bizirautea nahi badugu arduratu gaitzen beharrezko urratsak ematen. Hortaz, garbigunearen ordutegia kontuan hartu, irekita dagoenean joan, eta saia gaitzen ongi birziklatzen.



Finalera iritsi ziren bi taldeak. Ezkerraldean, urdinez, talde irabazlea.

Institutuko gazteak aurtengo BALIKEBALE 5.0 lehiaketan

Axi Astibiak, Beñat Portuk eta Etor Lizarragak osatutako taldeak irabazi zuen lehiaketa.

Gaztetuta iritsi da aurtengo BALIKEBALE, 15 eta 16 urteko neska-mutikoak izan baitira lehiakideak 5. edizio honetan. Izugarri gustura aritu ziren, hasieran halakorik pentsatzen ez bazuten ere. Urduri iritsi ziren, normala den bezala, izan ere 225 lagunengatik aurrean ari behar zuten ordubetez, galderak erantzuten. Eta lortu zuten nerbioak uxatzea, oso ongi aritu baitziren denak.

Abenduaren 15ean jokatu zen lehiaketa Leitzako Herri Aretoan. 225 ikusle, adin guztietakoak: gazteenak 10 ur-

tekoak, eta hortik gora 75-80 urte bitarteko herritarrak. Han bildu ziren partaideen aitona-amonak, gurasoak, izeba-osabak, auzokoak, lagunak, institutuko gelakideak Oholtzan, berriz, 12 lehiakide gazte, DBHko 4. mailako eta Batxilerreko 1. mailako ikasle leitzarrak. Jokoan eta jolasean aritzeko gogotsu iritsi ziren, bai herriari buruzko ezagutza erakusteko baita ongi pasatzeko ere. Izan ere, BALIKEBALE sortu zenean emanaldi entretenigarria izateaz gain helburu didaktikoa ere bazuen, ikusle

zein parte-hartzaileek herriari buruz zer-bait ikastea izan baita, hasiera-hasieratik, Balikebaleren asmoa.

LEHENBIZIKO EDIZIOA 2014AN

Lehenbiziko hirurak segidan egin ziren: 2014an, 2015ean eta 2016an.

Laugarren ediziorako 2 urteko atsedena hartzea erabaki zuen lantaldeak. 2018koa, ordea, 2019ra atzeratu zen eta bitarte horretan zine zaharra eraberritzeko lanak hasi ziren. 2020ko apiril-rako adostu zen lehiaketa egitea, ordu-



Balikebaleko lehiakideak eta laguntzaileak.

rako Herri Areto berria inauguratzeko zelako, baina martxoaren 15ean Covid-19aren pandemia iritsi zen, eta konfinamenduan sartu ginen. Ez zen Bali-kebalerik egin. Azkenean 2021eko abenduaren 17an eskaini zen emanaldia. Hura 4. edizioa izan zen.

Eta 2023ak ekarri digu 5. saioa. 9 urte pasatu dira lehenbiziko aldi hartatik, ariketak aldatzen eta berritzen joan badira ere jatorrizko esentziari eusten dio oraindik.

ARIKETAK ETA GALDERAK

Aurten 6 ariketa izan dituzte lehiakideek eta horietan puntu gehien eskuratutako 2 talde pasatu ziren finalera. Ordura arte, ordea, guztiak aritu ziren jokoan, 12 lehiakideak batera, bidean talderik galdu gabe. Eta denek eskertu zuten

oholtzan denbora gehixeagoz aritu izana.

Ariketa berriak ere izan ziren, *Telefono hondatua* esaterako. 2 euskalki ezberdinetako esaldi bana entzun eta ulertutakoa belarrira esan behar zien batak besteari. Bizkaierako kasuan, Ondarroako euskaraz entzundakoak inork asmatu ez bazituen ere, euskararen aberastasunaz gozatzeko balio izan zuen. *Musika ariketan* berriz, txistuka edo ahaleginetan aritu ziren, ikusleak eta partaideak barrez lehertuz. *Garai bateko tresna zaharrak* ere eskuratu behar izan zituzten publiko artera jaitsita, eta haiek zertarako erabiltzen ziren asmatu behar zuten. Ariketa honi esker adineko publikoak pozik oroitu zituen aspaldiko garaiak, eta gazteek, berriz, zer ziren eta zertarako balio zuten ikasi zuten.

ESKER ONAK

Lantalde bat aritu da hilabete luzez lehiaketa prestatzen, eta lanean aritutako gazte kuadrila txalotu nahi da, egindako lanagatik. Baita lehiaketa egunean laguntzaile izan genituen gazte pareare. Sari-emaileei ere eskerrik asko: Udalari, Aurrera Elkarteari eta Amazabal Institutuari. Nola ez, 12 lehiakideei: Naroa, Aiora, Paule, Axi, Etor, Beñat, Naia, Ainara, Maddi, Ioritz, Paul eta Ametsi, denei mila esker zuen parte-hartzearekin emanaldi eder hau burutzen laguntzeagatik. Eta bukatzeko, ahaztu gabe jakina, ikusleak eskertu nahi ditu lantaldeak, ikuslerik gabe ez baita lehiaketarik izanen. Eskerrik asko etortzeagatik, herriak herriarentzat egindako saioa guztiok osatzen baitugu. Bejondeizuela!!

B I K B

BAIETZ ASMATU!

Herri Aretoan ikusi berri dugun Balikebale lehiaketan hainbat galdera erantzun behar izan zituzten 4 taldeetako kideek, erantzunetan bi aukera emanda. Lehiaketako sortatik 10 galdera aukeratu ditugu Marmarirako.

Ea zuk ere, irakurle horrek, gogoan hartu ote zenituen emanaldiko egunean eta denak asmatzea lortzen duzun! Parte hartu ez zenuen gaztetxoek ere saiakera egin dezakezue, ea zuen gelakideen tokian bazeundete zenbat asmatuko ote zenituzten. Proba ezazue! Jakina da ez duzuela saririk jasoko, baina asmatzeak dakarren poza handia da, eta zure herria ongi ezagutzen duzula jakiteak ere ilusioa egingen dizu.

Eta lasai egon, uste baino gutxiago asmatzen badituzu ere, badakizu ikasteko garaia ez dela inoiz bukatzen eta pixka bat saiatuz gero Leitza hobeki ezagutzeko aukera izan baduzula. Eutsi horri!



Galdetegia:

1.- Zer esan nahi du Balikebale hitzak?

- a) Badaezpada ere
- b) Bakarrik ibili

2.- Leitzako erreka bateko urak burdina dauka. Zeinek?

- a) Arramiako errekek
- b) Txaragorriko errekek

3.- Nola esaten zaio Leitzako hizkeran Erromako zubiari?

- a) Ostadarra
- b) Ostrillike (edo ostilleka, ostillike)

4.- Zein auzotan dago Lesakolarreta baserria?

- a) Gorritzaranen
- b) Sakulun

5.- Garagarrila esaten badugu, zein hilabetez ari gara?

- a) Maiatza
- b) Ekaina

6.- Aurtengo Leitzulia lasterketa abiatu aurretik nori egin zitzaion omenaldia?

- a) Jon Egizabali. BTT lasterketetan Nafarroako txapeldun izan baita.
- b) Julen Olaizolari

7.- Leitzako armarrian ze animalia ageri da hari-tzaren ondoan?

- a) Otsoa
- b) Oreina

8.- Leitzako Amazabal Institutuan zenbat ikasle daude aurtengoa?

- a) 450
- b) 345 ikasle

9.- Bi urtez behin izaten da KORRIKA, euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Noiz izanen da berriz ere?

- a) 2024an
- b) 2025ean

10.- Zein altueran dago, itsas-mailarekiko, Leitzako herriko plaza?

- a) 575 metro
- b) 475 metro